

Eskuak.- Eskuen adierazpen aukerak landuko ditugu ondoko ariketak medio.

12. Xedea: Eskuen lotailuak lantzea.

Berotze ariketak

- 12.1.- Esku batez paper zati handi bat bildu, hatzen lotailuei eraginez.
- 12.2.- Eskua eta hatzak ahalik eta gehien luzatu.
- 12.3.- Eskua zabal-zabalik lurrean ipinita, altxatu hatzak banan-banan.
- 12.4.- Eskua zabal-zabalik lurrean jarrita, hatzak binaka altxatu.
- 12.5.- Beste eskuaren laguntzaz tiratu hatzak.

13. Xedea: Eskuaren adierazgarritasuna lantzea

Esku gidaria

Kidearen urratsak eskuaz gidatu, lurrean dauden paperak zapaltzeke ibil dadin.

14. Xedea: Eskuaren adierazgarritasuna lantzea

Esku adierazlea

- 14.1.- Eskuaz haserrea adierazi.
 - 14.2.- Eskuaz urduritasuna adierazi.
 - 14.3.- Eskuaz mina adierazi.
- (Asmatu beste egoera batzuk eta eskuez adierazi.)

ESKUEN LANTEGIA

Bideoaren atal honetan, eskuez baliatuz, hainbat ariketa egingo ditugu. Hasteko, eskuak inolako apaingarririk gabe erabiliko ditugu, bideoan erakusten diren ariketak egiteko.

- Katedrala bere eliztiar eta guzti.
- Aizul! zatoz hona.
- Eskailera amaiezina.
- Txinar erako pultsua. Nor baino nor, arerioaren hatz potoloa harrapatzeko.
- Mudrak.

*Multzokoak Indian erritoetan, dantzan eta ikonografian erabiltzen diren keinu sinbolikoak dira.

Hauk eginda, eskuak apainduta egin daitezkeen ikuskizun txiki pare bat erakusten da bideoan, batetik, can-can dantza, eta bestetik, abesbatza baten saioa.

Bideoan erakusten direnetan oinarrituta, hamaika gauza egin daitezke eskuez; beraz, badakizue, astindu irudimena eta prestatu zuen eskolako kideak harrituko dituen emanalditxoak.

HANKAK.- Hanken adierazpen aukerak landuko ditugu ondoko ariketak medio.

15. Xedea: Hanketako lotailuak eta giharrak lantzea. Berotze ariketak

- 15.1.- Lurrean eserita, orkatilak tolestu hiru aldiz.
- 15.2.- Lurrean eserita, biratu oinak hiru aldiz alde bakoitzera.
- 15.3.- Lurrean eserita, ireki eta itxi hankak hiru aldiz.
- 15.4.- Lurrean eserita, hartu oinetako bat eskuez eta biratu hatzak banan-banan.
- 15.5.- Lurrean eserita, oinazpiez txaloak jo.
- 15.6.- Lurrean ahoz behera etzanda jarri eta oinazpiez txaloak jo.

16. Xedea: Hanketako lotailuak eta giharrak lantzea. Irakurle aparta

Lurrean eserita zaudetela, ipini liburua zuen aurrean lurrean eta oinetako hatzez eragin liburuari, eskuez ariko bazinete legez. Ariketa zailtzeko, egunkari bat erabil dezakezue.

17. Xedea: Ibiltzearen adierazpen aukerak lantzea tokitik aldendu gabe.

- 17.1.- Irudikatu zoru garbitu berria eta ibili haren gainean.
- 17.2.- Irudikatu zooparketik lehoi batek ihes egin duela eta harrapatu nahi zaituztela.
- 17.3.- Irudikatu bi dorretxeren teilatuetara loturik dagoen soka baten erdian zaudetela.
- 17.4.- Irudikatu rap musika zaleak zaretela eta Bronx-en zaudetela.
- 17.5.- Irudikatu Ranbo zaretela eta oihanean zaudetela.

HANKEN LANTEGIA

Bideoaren azken atal honetan, oinekin ikuskizuntxo bat prestatzea bururatu zaigu. Ikuskizuntxoaren prestaketan honako urrats hauek eman ditugu.

- 1.- Gidoia idatzi. Hiru lagunen arteko elkarrizketa izango da gure gidoia.
- 2.- Gidoi horren hitzak grabatu.
- 3.- Oinetako bakoitzari pertsonaia baten papera eman.
- 4.- Oinaren mugimenduak hitzen esanahiari egokitu.
- 5.- Oin bakoitza, pertsonaiaren izaera kontuan hartuta, apaindu.
- 6.- Eskenatoki xume bat prestatu. Kontua da soilik oinak ikustea, ez haien jabeen hankak.

Hori eginda, bideoz hartzeari ekin diogu eta, hortxe, bideoan duzue emaitza. Ea gustatzen zaizuen.

Anima zaitzte. Seguru egon ederki pasako duzuela.